

1.– JAINKOAK EGIÑAK

Gizakia eta bizidunak Jainkoak egiñak garala sinisten dogu, baiña gaur itaun bat egiten dogu, asten dogun idatz-lanen zerrenda oneri asierea emoteko.

Jainkoak egiñak gara, Bibliak diñoan lez, berak eskuz egiñak ala aurrerapenaren edo eboluziñoaren bidez egiñak?

Bizidunen eta gizakien sorrerea adierazteko munduko lurralde guztietan dagoz kondairak eta orreitariko bat da Biblian agertzen dan eta beste lurralde batzutan lenago esanda egoana. Baiña ori, itzez-itx artu bear dogu ala Bibliak esan gura daukuna Jainkoa dala egillea da, beste barik?

Oraintsu esan dabe Ipar-Ameriketan eurak ez dabela onartzen aurrerapena edo eboluziñoa izan leitekenik gure sorkuntza egiteko Jainkoaren bidea. Beste gauza askotan lez emen be Ipar-Ameriketarrak euren eldutasun eskasa agertzen dabe.

...

Eta zer diñoa Eleizearen irakatsiak?

Argi ta garbi esan eban XII Pio Aita Santuak Humani generis bere entziklika'n: "Jakitunak aurrerapenaren bidea ziurra dala baieztatzen ba'dabe, Eleizearen aldetik ez dagoa eragozpenik ori onartzeko". Eta oraintsuago II Jon Paul Aita Santuak argiago ta zeatzago esan dau ori.

Baiña ziur dagoz jakitunak?

Bai. Eta, konparaketa bat egiteko, gaur "eguzkia dagoala erdian eta lurra inguruan biraka" esatea ziurra dan bestean dala ziurra gizakiak beste bizidun batzutatik etorriak garala esatea.

Egi au argi, garbi ta zeatz lenengo agertu ebana Darwin izan zan eta oiñarri bi ipiñi ebazan aurrerapenaren bide ori argitzeko: 1) Izadiak berak egiten dau aukerape-

na eta motarik onenak jarraitzen dabe bizirik eta makale-nak galdu egiten dira. 2) Bear-izanak sortzen dauz bizidunetan bear dabezan erakundeak.

Darwin'en aldi inguruan edo lentxuago antzeko buru-bideak agertu ebezan Lamark'en eta Lineo'k eta bere aldi-inguruan aurkitu ebazan lekaidetxe'ko bere ortuan Mendel'ek ain bearrezkoak ziran jatorriaren legeak.

Oraintsu entzun dogu Turkia'n sendi baten zazpi seme-alaba jaio dirala eta eurentatik iru ezin dirala ibilli lau-oinka baiño. Ori ete dan diñue bidean galdu zan bitarteko mota edo espezie bat.

...

Edesti apur bat egiteko esan daigun. Orain 10 milloi urte gorila antzeko bat egoan baiña ez egoan gizonik oraindiño.

Orain 100 milloi urte gorila orren aurretikoa arratoi bat edo katamixer bat zan.

Orain 400 milloi urte arraiñak baiño besterik ez egoan munduan eta geroago, arraiñak zakatzak galgu eta biri-kiak sortu ebazanean, txoriak sortu ziran.

Munduan izan diran pizti-mota edo espezie guztietan %99,90 galdu egin dira eta gaur 10 milloi pizti-mota daukaguz munduan.

Len-biziduna munduan agertu zala 3.500 milloi urte dira. Gaur itxas-barrenean, ikusi-eziña dan arraintxu bat geratu eta beste bizidun guztiak galduko ba'lira, piztitxu orretatik beste 3.500 milloi urtetan gaur daukagun beste bizidun agertuko litzakez, gizakia be bai, baiña, jakiña. ez gaurkoak lako bizidun mota bardiñak!

Olazar'tar Martin'ek

.....
Aurreko orrialdetik dator

argiaren bideko erlejiñoa, eta Kristo egibide argien irakaslea da. Gizonagan txarrerako jokerea dago eta Salbatzaille baten bear-izana agiri da.

Eskubideen eta edestiaren arloa sarritan aztertzen dau Kant'ek. Ez dira gauza bat eskubideak eta oiturak edo morala, bata gizonaren barruan dago, bestea kanpoan. Eskubideak laterrietan dagoz,erritarregandik artuta. Emen argi agiri da Rousseau'ren bidea.

Edestiaren barruan Jainkoaren ardurea agertzen dau Kant'ek, beintzat aurrerapena dagoala argi agertzen dau. Eta azken elburua gizakia da, baiña bizidun-mota lez artuta.

...

Amaitzeko, ez da gauza erreza Kant'en sistema guztia aztertzea, berak be bere irakatsiak alkartu nai izan ebazan bizitzaren azkenean, "Opus postumum"en agerten dan

lez, baiña ez eban amaitu. Or agertzen asi zana ez dago bere irakatsien aurka, baiña ba-dagoz aurkakeri batzuk, esaterako Kant'ek Jainkoa goian jarri arren, batzutan munduaren barruan jarten dauala dirudi,egiteetarako edo moralerako legeakaz bat eginda.

Arazorik sakonenak aztertu ebazan gizakien bizitzan. Ez eban emon azken -erantzunik eta eskubidea daukagu bere gautza batzuk ez onartzeko, baiña bere irakatsiak ez dira aitzu bearko urrengo folosofo guztiak aztertu bear diranean.

Asko aurreratu da zentzun-bidea ta buru argiarena alkartzeko eta elburu batera eltzeko,baiña oraindiño asko falta da Aristoteles oiñarri dala, Akinotarrak lortu eban erakundea lortzeko.

Olazar'tar Martin'ek